

# AINTZINEKO ZIENTZIA (III): Mesopotamia eta Egypto

Luis M. Bandres

## Burdin-aroa

K a bigarren milakadaren erditik aurrera ordu-rarte ibar-lautada berezi batzuetan mugatuta zeuden zibilizazioak, munduko beste alde-tara zabalduko dira Europako, Asiako eta Ipar Afrikako hazgarri diren lurraldeetara, alegia Baina honetarako zenbait kausa izan behar zen. Burdin-aroan lortutako aurkikuntzak ez dira Brontze-aroaren hasierakoak bezain garrantzitsuak izan, baina askoz, ugariago eta merkeago zen metal batean oinarritzen zirenez gero, beren hedapena askoz ere handiagoa izan zen.

Lan hauetan, Mediterraneo itsasoaren inguruko lurraldetaz arituko gara bereziki eta hau horrela egiteko bi arrazoi ditugu. Lehenengo, guretzat bakarrik ez baizik eta egungo mundo osoarentzat, zientzia han emandakoaren ondorioa baino ez delako eta bigarren, garai hartako beste zibilizazioak, Txinakoa edo Indiakoak adibidez, baino hobeto ikertuta izan denez gero, berari buruz gehiago dakigulako.

*Burdina erabilia, artean nekazaritzako ezinezkoak ziren lurralde asko urratu ziren.*

Burdina, kantitate erabilgarrian noiz eta non erdietsia izan zen lehenengo aldiz ezagutzen ez den gauza da. Lehenengo burdina, ziuraski, meteoritoetatik lortutakoa izan zitekeen, hau kobreak antzera tratatua izan ondoren, beroketa eta mailuketa alegia, erabiliko zen baina arrunt eskas eta, beraz, arraroa izan behar harko zukeen. Mineralekin lortutako lehena

urregintzareen kondarretakoa izango zatekeen eta, beraz, bera baino arraroagoa. Kantitate politean, dirudienez, Kaukasoaren Mego aldean K a XV. mendean lortu zen baina, teknikarako gai izateko eta, bide batez, ekonomia-aren aldetik egoki K a XII. menderarte ez zen agertu. Burdinarekin batera kontutan hartu behar diren beste bi faktore honako hauek izan ziren: batetik, estepako gizonak, astoak baino askoz arinagoak eta indartsuagoak ziren, basa-zaldien hezkundea lortu ondoren hauen gainean ibiltzeko egin zuten erabilpena eta bigarren, unzigintzan eta hauen erabileran lortutako aurrerakuntzak. Hala ere, burdinaren erabilaren ondorioz baino ez dira

Bestalde, burdinaren merkatzea zela eta, aizkora eta goldearen nabarra, brontzea ohizko erabilpenetarako garestiagoa zenez, burdinez egiten hasi ziren. Honen ondorioz, artean nekazaritzarako ezinezkoak ziren lurralde asko urratu ziren. Lur-sail berriak lortzeko zenbait baso ebaki eta lur hauetarako ubideak behar zirela eta egin ziren Europa baso hutsa izatek bere gari-lurraldekin hornizio-lurralde bihurtu zen eta piskanaka zibilizazioaren ardatza ekitaldetik mendebalderantz joan zen.

## Feniziarak eta Hebraitarak

Burdin-aroaren aurrerapen berriak lehen baliatu zuen herria Syriaren kostaldeko Fenizia zen. Alde batetik, Egyptoko eta Assyriako aintzinako inperio handien artean egoteagatik eta bestetik, unzigintzako egur aski eta oso onak edukitzeagatik merkataritzara jo zuten. Hauen lanetarako beharra zutenez gero,


alfabeto bat asmatu eta munduan zehar zabaldu zuten. Hala ere, kulturari dagokionez aintzineko babiloniarrekin oso lotuta zeuden eta hauena, ia ezer berririk asmatu gabe bereganatu eta egokitu zuten.

---

## *Idea baten alde burrुकatu duen lehenengo herria izan da juduen herria.*


---

Feniziarren aidekoak diren hebraitarrek, beste eginkizun bat egin beharko zuten historian. Guda-herrien artean kokaturik eta unti-gintzarako behar ziren bitartekorik gabe zegoen eta baldin eta nazio bat osatu bazuten ere, liburu batean, Biblian alegia, dagoen dotrinaren garapenagatik izan zen.



Inskriptzio feniziarrek dituen sarkofagoa

Liburu hau aintzinako kondaira-pila edo istorio-bilduma baino askoz gehiago da. Bere lehen idazketa K.a. V mendean egin zen. Etika bat duen propagandaz betetako liburu bat da. Propaganda idazketa bezain zaharra da, baina liburu hau sortu bitartean bere erabilpena erregeak eta apaizak goraiatzea zen soilik. Bibliako propaganda, aldiz, oso bestea da. Nolabait esateko herritara da eta zuzenbidearen eta zuzentasunaren ideiak goraiatzen ditu, bereziki. Bereztasuna ez datza ideia



Feniziar itsasontzia

hauetan banaturik, beste kultura batzuek ere bazuten hau, beren konbinazioan, baizik Biblian agertzen den zuzentasuna, hain handi batean, boteretsuen gehikeriaren aurkako protesta da eta hauek beren esparruan mantentzeko zuzenbide-mota bat ematen du. Idea baten alde burrुकatu duen lehenengo herria izan da juduen herria. Juduen historia, Jainkoaren izenean, herriaren eskubidearen alde eten gabeko gatazka izan da. Gaurko kultural Bibliaren eraginak bi bide eraman ditu: zuzena, kristautasunaren bidez eta zeharkakoa Koranaren bidez.

---

## *Bibliaren propaganda herritara da, ez dago errege ezta apaizei zuzenduta.*

---

Zientzian, guzti hau baino eragina handiagoa izan duen beste elementu bat badago Biblian. Hain munduaren eta gizonaren sorreren aidarazpena da. Saiakera hau oso meritu handikoa da K.a. 3000 urte inguruan egin zelako hain zuzen ere, hots, zibilizazioaren sorreran gutxi gorabehera. Bibliaren lehen liburuetan kreadioari buruzko aintzinako historia, sumerioar eta babiloniar historiak dira. Tribu judutarrek historia hauek bereganatu ondoren Jainkoaren eta bere herriaren arteko hitzarmenaren arrazoi bihurtu ziren eta beraz, kritikarik eta ikerketarik at gelditu. Bide horretatik jarraituz, mendetan zehar, fedearen bitartez, egiak literaltzat onartuak izan dira Zientziari nolabait balaztatuz. Gaur egun, zorionez, beren benetako esan nahia lortu dute.